

# Euskal literaturaren inguruko ikerketak

(Research in connection with Basque literature)

Kortazar, Jon

Euskal Herriko Unib. Filología Fak. Unibertsitateko ibilbidea, 5.  
01006 Vitoria-Gasteiz

BIBLID [1137-4454 (2002), 19; 77-82]

---

*Esta comunicación considera los trabajos sobre historia de la literatura vasca que se han producido después de la fecha de la muerte del profesor Mitxelena. Se han considerado tanto los trabajos generales sobre literatura vasca, como los específicos, las Tesis doctorales y las Monografías más sobresalientes.*

*Palabras Clave: Historia de la Literatura Vasca. Bibliografía. Crítica literaria.*

*Mitxelena irakaslea hil zenetik euskal literaturari buruz egindako lanak hartzen ditu kontuan komunikazio honek. Euskal literaturari buruz egindako lan nabarmenenak hartu dira kontuan: orokorrak zein bereziak, Doktorego Tesiak zein Monografiak.*

*Giltza-Hitzak: euskal Literaturaren Historia. Bibliografía. Literatura Kritika.*

*Cette communication examine les travaux sur l'histoire de la littérature basque qui ont été produits après la mort du professeur Mitxelena. On a examiné aussi bien les travaux généraux sur la littérature basque que les travaux spécifiques, les Thèses doctorales et les Monographies les plus remarquables.*

*Mots Clés: Histoire de la Littérature Basque. Bibliographie. Critique littéraire.*

## **Euskal literatura literatur sistema bilakatu denean**

Mitxelena irakaslea zendu zen garaian 1987an, euskal literaturan aldaketa eta sendotze une itxaropentsua gertatu zen. Hain zuzen, keinuetarik bat Atxagaren literatur obra zen, bere sariarekin eta ondorengo atzerrirako irekitzearekin. Beste bat da salgai ateratzen diren liburuen ugaritasuna. Argitalpenen zenbakiak garai ona iragartzen zuten. Asko argitaratzen zen eta, zirudienez, ona. Sustapen berri horrek guztiak, iturburua literaturari buruzko pertzepzioa aldatzen duten politika izaerako eta garrantzi bereziko bi gertakizunetan dauka. Autonomia Estatutuaren onartzeaz eta Euskararen Erabilpenaren 1982ko Oinarrizko Legearen promulgazioaz mintzo naiz. Bi gertaera erabakitzaile dira, legalitate horrek sortzen duen egoeran, euskararen irakaskuntza ikastetxetan sartzen da eta ondorioz, euskal literaturaren irakaskuntzari arlo berria irekitzen zaio, irakurle potentzialen ugaltzearekin, eta, ez hain baikorrak izanez, irakurle bahitua deitua izan denarekin, eskolako curriculumak eskatzen duela, hain zuzen literatura irakurri behar duen irakurlea.

Eskola arautuan sartzea, euskal literaturak garai horretan ezagutu duen funtsezko aldaketarik bat da.

Horren ondorio garrantzitsua izan da literaturaren irudiaren aldaketa gertatu dela, sorkuntzako literaturaren kontzeptuaren aldaketarekin batera, eta hitzak eztabaidak sor baditzake ere, literaturak bere sorkuntzaren mugak hedatzen ditu. Horrela gertatu dira hemen aipatzea egoki den zenbait fenomeno:

- a) Helburu pedagogikoa duen literatura sortzen da, eskolari zuzendua, paraleloa, agian, kontsumo azkarreko literaturarekin, literatura arina eta irakurtzeko eta kontsumitzeko erraza.
- b) Haur eta gazte literaturaren garrantzia zabaltzen da.
- c) Eleberraren garaia da. Josep Plák zioen bezala: bere burua literatura-tzat daukan orok, literatur moderno orok, prosan oinarritu behar du eta ez lirikan, Aitzol inspiratzaile nagusi zuten Olerkarien belaunaldietakoek defendatzen zuten bezala.

Mugimendu hedakor honek duda zenbait sor dezake bere arrakastari dagokionez: euskarazko literatura bezalako merkatu txikiak, idazlearen profesionaltasuna nekez ahalbidetu dezake (ez dakigu zenbat irakurle lortu dituen literatura honek, ez dakigu zenbat irakurle fidel dituen), baina, dudarik gabe, berarekin darama, eskolako testu eta eskolan derrigorrez erosi beharreko testu-liburuen garrantziari esker, argitaletxe sektore baten indartzea, honek Euskal Herria ia salbuespenik gabe sukurtsalak ireki dituzten espainol eskola-liburu argitaletxe handien konpetentzia argi eta garbi jasan behar duelarik. Argitaletxe sektore horrek, jakina, ez du bakarrik eskola-testua sortzen eta literaturaren argitalpenari arreta handiz begiratzen dio.

Argitalpen sektorearen garrantzia, literatur sistema bat sortzearen –bere ahultasun guztiekin– sintometarik bat baizik ez da.

Literatura sistema hitzak industria kutsua atxikitzen du eta literaturaren sozializatzearekin badu zerikusirik. Sistema batean, literatura ez da sorkuntza bakarrik, bere baitan merkatuko beste faktore batzuk ere badute beraien eragina. Literatura, alderdi soziala bilakatzen da eta, ondoko parte hartzaile nagusiak bederen barneratzen ditu: sortzailea, argitaratzailea, irakurlea eta bir-sortzailea.

Sistema literario bat gauzatzen denean, literatura gorpuztu egiten da, eta horretan datza euskaraz eta euskarazko irakaskuntza eskolan sartzearen ekingia nagusia: idazlearentzat lana sortu du, eta lan hori jarraitua eta ez noiz-behinkakoa, profesionalizatua eta ez borondatezkoa izan dadin baldintzak sortu ditu; argitaletxe sare egonkorra sortu du. Dirudienez, krisiak jarraitzen du beste bi sektoreetan; irakurle eta kritikarenean.

Prozesuaren azken ondorioa, euskal literaturari buruzko ikerketa lanei emandako garrantzia litzateke. Lan kritiko hau bi sorkuntza sektore ezberdinetan burutu da:

- Literaturaren historiak ugaldu dira.
- Literaturari buruzko tesien kopurua handitu da.

### **Euskal lirikari buruzko tesiak**

Literatur sorkuntzaren munduan, unibertsitateari maiz aurpegiratzen zaio isildu egiten dela oraingo gertakari literarioen aurrean. Oinarri gabeko salaketa da eta gizartean hain zabaldua den aurreiritziaren ondorioa. Aski litzateke begirada bat botatzea azken urte hauetan irakurritako tesiei ohartzeko ez dagoela horrelako isiltasunik, eta neurri apalagoan, oraingo literatur sorkuntzari dagokionez. Azken urteetan, literatura ikerketa indartu da doktoratutzako tesi ezberdinetan gauzatu den ikerketa lanari esker. Fenomeno horretan, jakina, tesiak ia sistematikoki idaztera eta aurkeztera behartu duen unibertsitateko irakaskuntza sistemak badu zerikusirik. Ugalketa, beti erlatiboa dena, euskal literaturaren azterketaren zati horren ezaugarrietarik bat litzateke. Bigarrena, ikerketara daramatzaten metodoen aniztasunari dagokio.

Tesien kopuruari buruz, kontuan hartu beharko litzateke 1987an euskal literaturaren alorrean aurkeztutako tesiak hiru bakarrik zirela, egun hogeit bat baino gehiago eginak direlarik eta beste hamarren bat egiten ari.

Metodologiei buruz, ohartarazi behar genuke ikuspegi semiotikoa eta mitokritikoa ia bakarrik erabiltzetik, besteak beste, soziokritika eta harrera teoria barne hartzen duen aukera aniztasun batera pasatu dela.

Semiotika erabili da Karlos Otegiren tesia idazteko (“Lectura semiótica de *Biotz-Begietan* de Xabier de Lizardi”); estilistika eta erretorika, Patxi Salaberriren (“Axularren erretorika”), Guillermo Etxebarriaren (“Orixeren metrikaz”) eta Jon Otaegiren (“Adjektiboa euskal literaturan”) tesientzat; Literaturaren historia

gida bezala erabili da Lurdes Otaegiren lanean (“Lizardiren garai-giroaz”). Aurelia Arkotxak irudimenaren kritika (*Critique de l’Imaginaire*) landu du Gabriel Arestiren *Maldan beherari* buruz idatzi duen tesian. Ideien historia izan da Iñaki Aldekoaren lanaren oinarria (“Munduaren neurria, Arestiren aho biblikoaz”).

Soziokritika eta harrera teoria elkartzen dituen Mari Jose Olaziregiren tesiak (“Literatura eta Irakurlea. Soziologiatik testu estrategietara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan»), eta Jon Casenaveren lanak Jean Etxepareri buruz, garai berriak iragartzen dituzte.

Azpiarratu behar litzateke merkatuak ere bere eragina izan duela tesien alorrean eta ondorioz nahiago dela oraingo idazleei buruz lan egin, ahal bada publikoarengan arrakasta izan dutenak, edo haur eta gazte literaturaz arduratu. Azken arlo honi buruzko hiru tesi aurkeztu dira dagoeneko (Xabier Etxaniz, Eukene Martín eta Manu Lopezenak).

Merkatuak sortzen duen bigarren eragina fokalizazioa bezala deskriba dezakegu. Ez dira gehiago aroak aztertzen, aldiz tesiek idazle baten obra iker-tzen dute edo idazle baten funtsezko obra batean mugatzen dira, eta ez bere obra osoan.

Hirugarrenik, egoki litzateke idazle bati buruzko ikuspegi aniztasunaz mintzatzea. Urri agertu den alor honetan, doktoratutzako tesiak gutxi ziren. Egun, idazle batzuk (Lizardi, Lauaxeta, Txomin Agirre) ikuspegi ezberdinetarik iker-tzen dituzten tesi batzuetan gauzatu den arreta jarraitua merezi izan dute. Ikertzaileen arreta adosten duten idazle hauek, euskal literaturari buruzko tesien zenbait mugak markatzen dituzte.

- Euskal narratibaren sorrera. Bi tesi Txomin Agirrereri buruz.
- Euskal poesia sinbolista. Bi tesi Lizardiri buruz, bi Lauaxetari buruz (bat Teologiako Fakultate batean aurkeztu izan arren), bat Orixeri buruz eta beste bat lirika tradizionalaren tokiaz poesia horretan.
- Poesia modernoaren sorrera. Bi tesi Arestiri buruz.
- Haur eta gazte literatura.

## **Lan monografikoak**

Urtero argitaratutako liburu kopuru triunfalistek ez dute ahultasun nagusi bat gordetzen: liburu-dendatara liburu erostera hurbiltzen den irakurle heldurik ez izatea. Literatura eta eskola eskutik doazen garai honetan, gabezia hori nabarmendu egiten da. Irakurleria ikasiaren ahots hori ez da iritzi publikoaren banaketa kanaletara heltzen. Munduko merezimendu guztiarekin ere, idazle batzuk (gutxik) asko saltzen dute eta idazle anitzek, gutxi.

Sortzaileen literaturak, batzuetan, ez badu arrakasta izugarria, ezin da pentsatu literaturari buruzko literaturak harrera handiagoa ukan dezakeenik.

Baina monografiaren argitalpenak gora jarraitzen du. Jon Juaristik iragarri zuen Euskal Herriko kritikaren geroa, sortu berriak ziren fakultateetatik ateratzen ari ziren ikasleen multzoen esku izango zela. Iruditzen zait hori dela gertatu, zehaztu behar balitzateke ere 91. urtetik landa aldizkariaren argitalpenak beharakada bat ezagutu duela, hots, sortzaile berrien formaziorako plataformak gutxiago direla.

Euskal idazleei buruzko monografiak, doktoratutzako tesiei buruz mintzo ginenean aipatzen genuen joera jarraitu dute: azken literaturari eta Bernardo Atxagari atxikimendua. Lehenik, aipatu behar dira Iñaki Aldekoaren lanak, hala nola, *Zirkuluaren hutsmina*. Liburu horretan edo *Antzarra eta ispiluan*, ikertzaille honek Atxagaren obra aztertu du bere ikerketak literatur kalitatea izan dezan bilatuz, eta literatura saioari hurbilduz. Jarrera hori bera agertzen da bere antologiaren hitzaurreetan: *Euskal ipuinen antologia* eta *Antología de la poesía vasca*, azken obra honek katalanez argitaratutako aurreko lan baten antza argia izanagatik ere.

1997an, Labayru eta BBK argitaletxeek *Euskal poesia 80ko hamarkadan* argitaratu zuten. Nire buruari jarri nion helburua, entziklopedia moduko lan bat egitea izan zen, 1978. urtetik, Bernardo Atxagaren *Etiopiaren* argitaratze urte-tik, 1995. urteraino, zikloa hesten den urteraino, Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoorekin*.

Lehenik, zirkuitu komertzialetan argitaratutako poesia obra guztiak eta zenbait, salbuespenekoak izan arren, idazle argitalpen gisa argitaratuak, fitxatu egin ziren. Zenbaketak, gutxi gora behera 150 poesia obra eman zuen urte haientzat. Gero, 80ko hamarkadan poesia argitaratzen hasi ziren idazle guztiak hautatu ziren, zenbaki borobiletan 75 zirenak, eta arreta berezia jarri zitzaizkien poesia obra bat baino gehiago idatzi zuten idazleei. 1980 eta 1995 artean hasi ziren idazle hauen obra aztertu zen, baina azterketan ez ziren sartu 1990etik landa argitaratzen hasi zirenak. Epe horretan obra bat soilik argitaratu zutenak ez ziren kontuan hartu, baina haien kopurua handia zenez gero, azterketa orekatu zen, idazle hauetako gehienek argitaratzen zituzten hiru poesia sailei buruzko (Ustela, Uhargi eta Susa) monografiekin, haien presentzia ere aztertua izan zedin moduan.

Lanak, 80ko hamarkadako poesia sorkuntzaren mapa bat osatzen duten 40 monografia biltzen ditu.

Lanak bost poesia talde nagusi bereizten ditu: Pott banda, non Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiari buruzko lanak aurki daitezkeen; esperientziaren poesia, espainiar esperientziaren poesiaren ekarpenekin sinbolista korrontea lantzen jarraitu duen poeta multzo bat. Hauen artean, azpimarratzekoak dira Felipe Juaristi, Juan Kruz Igerabide, Amaia Iturbide; Iparraldean sortutako poesia, Itxaro Borda, Jon Casenave eta Aurelia Arkotxaren sorkuntzekin; oinarri abangoardistako poesia konprometitu bat, non Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarri nabarmentzen diren, eta poetika ezberdinak ikus daitezkeen bosgarren poeta talde bat: Patxi Ezkiagaren narrazio-poesia, Tere Irastorzaren isilta-

sunaren poesia, Luigi Anselmiren hedonismoa eta Patziku Perurena eta Luis Berrizbeitiaren era ezberdineko neopolulismoa.

Irregularitasunak eta garrantzi gutxiko idazle batzuei emandako arretak, obrari batasuna kentzen diote eta monografia bilduma baten antza ematen.

Agerikoa da monografiak nahiago dutela eleberraren munduan ibili, genero horrek irakurleen artean duen harreragatik, baina ez dira ahantzi behar Amaia Iturbide eta Sebas Garcíaen lanak Jon Mari Lekuonaren obrari buruz.

Edo Aitzpea Azkorbebeitiaren lan zehatza Joseba Sarrionandiari buruz.

## **BIBLIOGRAFIA**

AULESTIA, G. (1992) "Historiografía literaria vasca". *Boletín de la Fundación Sancho el Sabio*, 51-58.

LASAGABASTER, J. M. (1983) "La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica", *Mundaiz*, 26, 34-52.

OLAZIREGI, M. J. (1997) "La historiografía literaria vasca (1990-1996). Resumen crítico-bibliográfico", *Cuadernos de Alzate*, 16, 185-190.